



## **6. AKTA**

### **OHIKO UDALBATZA, 2005eko apirilaren 26an izandakoa.**

NON: Pasaiako Hirian eta San Pedroko Udal Aretoan. NOIZ: Bi mila eta bosteko apirilaren hogeitaseian. Bilkura buru Izaskun Gómez Cermeño alkatea dutela eta Joseba Belaustegi Cuesta behin-behineko idazkaria bertan dela, ondorengo zinegotziak etorri dira

#### PSE-EE-tik

Lore Suárez Linazasoro a.  
Lucía Querido Noceti a.  
Juan Manuel Domínguez López j. eta  
Rafaela Romero Pozo a. (aktan aipatzen den unean etorri da).

#### EAJ-tik

José Luis Goikoetxea Garmendia j.  
José Manuel Anso Martínez j.  
Juan Ignacio Lasurtegi Berridi j. eta  
Joaquín Martínez Vidal j.

#### EA-tik

Miriam Cano Puy a.  
Mariví Roteta Mujika a. eta  
Aitor Larrañaga Burguera j.

#### PP-tik

Guillermo Sánchez-Berra Quintana j. eta  
José Luis Mtez. de Espronceda Luiña j.

#### EB-tik

Jesús M<sup>a</sup> García Garde j. eta  
Fco. Javier Pombo González j.

Ohiko bilkura egiteko elkartu dira goian izendatu ditugunak, zehaztutako data eta tokian, aurretik bidali zaien bilera-deiari jarraiki. Ez du ezin etorria justifikatu Juan Ramon Gonzalez Medrano atxiki gabeko zinegotziak. Halaber, bilkura honetan izan da Karmele Lizaso Ubera andrea, behin-behineko kontu-hartzailea.

Bilkura buruak ikusi du batzordekide aski badagoela Udalbatza eratzeko eta bilkurari hasiera eman dio 9:00etan; ondoren gai-zerrendako hurrengo puntuak aztertzeari ekin zaio.

### **1.Xedapen ofizialak eta alkate eta zinegotzi-ordezkarien ebazpenen berri ematea.**

Bertaratutakoen esku jarri da alkate eta zinegotzi-ordezkarien Ebazpen-liburua, horren berri izan dezaten.

### **2.Alkatearen gestioak eta Gobernu Organoen kontrola (T.E.O.L.ren 46.2.e) artikulua (arabera).).**

Alkate andreak azkeneko bilkuratik hona egindako gestioen berri eman du.

- Halaber, udal aurrekontuaren likidazio eta erakunde autonomoen berri eman du, likidazio horri buruzko dokumentazioa eta 2004ko kontu orokorra banatuz.
- Ondoren, Molinao itsasadarreko kaleratzeen gestioak nola diren adierazi du, bereziki egoera hori dela-eta izan diren auzietan aldeko autoak eman direla.
- Segidan, EAJko zinegotzi-taldeko eledun Jose Luis Goikoetxea jn.ak galdetu du nola dagoen kreditu-txertaketaren gaia. Kontuhartzaileak jakinarazi du horri emango zaion trataera dela 2005eko lehen aldaketarena.
- Ondoren, EAJko zinegotzi-taldeko eledun Jose Luis Goikoetxea jn.ak adierazi du txertaketa hori ez dela kreditu-aldaketa eta galdetu du ea aplikatzekoa den 2004an indarrean zegoen araudia; halaber, eskatu du kontu-hartzailearen erantzuna aktan bertan arrazoitzeko.
- Eskaera horri erantzutearren, udal kontu-hartzailearen txostena hitzez hitz jasotzen da akta honetan:

“Gipuzkoako Lurralde Historikoko Toki Erakundeen aurrekontuei buruzko abenduaren 19ko 21/2003 Foru Arauaren 28. artikuluan kreditu-txertaketa kreditu-aldaketen mailan jasotzen da (28b.b.).

32. artikulua ezartzen du aurrekontuari txertatu ahal izango zaizkiola (...), eta hortik ondorioztatzen da aldaketa aurrekontu honetan egin dela (horri kredituak gehitu zaizkio, lehenagoko aurrekontu batean bazirenak). Beraz, 2005eko aurrekontuari txertatzea aurrekontu horren beraren aldaketa da. Foru Arauaren ondoko artikuluek tesi hau berresten dute:

32.4. art.: Kreditu txertaketak **eransten diren ekitaldiaren barruan erabili beharko dira.**

32.5. art.: Beharrezkoa bada, eginkizun egitarauari **alta emango zaio indarreko aurrekontuaren egituran.**

Betiere indarreko ekitaldiari gagozkiola, hau da, kredituak txertatzen direnari, kasu honetan 2005ekoa.”

- Ondoren, PPko zinegotzi-taldeko eledun Guillermo Sánchez-Berra Quintana jn.ak galdetu du Azti eta Pasaiako arrain-lonjaren arteko harremanari buruz. Erantzun diote Eusko Jaurlaritzak Rogelio izendatu omen duela arrantzako gaietan aditu.

### **3.Zinegotzi-zereginak betetzeko dedikazio osoaren aitortza.**

Talde Popularrak eskaera egin du Guillermo Sánchez-Berra Quintana zinegotziari dedikazio osoa aitortzeko, udal aurrekontuaren hasierako onespenetik aurrera, Aurrekontua Gauzatzeko arauaren 10.1. oinarriaren babesean. Eskaera horri dagokionez, Udalbatzak, bertan dauden zinegotzien gehiengoz ondokoa

#### ERABAKI DU

LEHENA.- Guillermo Sánchez-Berra Quintana jn.ari dedikazio osoa aitortzea, dagozkion zinegotzi-zereginak eta ordezkatzeko duen zinegotzi-taldearenak betetzeko, EUFALEBAko 21. mailari dagokion ordainsariarekin.

BIGARRENA.- Pertsonal Sailari eta Ekonomia Arloari erabaki honen berri ematea.

- Aktan jasotzeko, bozketaren emaitza honako hau da: ZORTZI aldeko boto, PSE-EE (4) PP (2) eta EB (2) taldeetako zinegotziena; eta ZAZPI aurkako boto, EAJ (4) eta EA (3) taldeetako zinegotziena.



#### **4.2005eko plantilla organikoa eta LPZ. Behin betiko onarpena.**

ELA eta LABeko sindikatu-atalek eta Pasaiako Udaleko Langileen Batzordeak –sarrera-erregistroa 1717, 1718, 1766 eta 1767- erreklamazioak egin dizkiote 2005eko ekitaldiko Plantilla Organikoaren eta Lanpostu Zerrendaren hasierako onarpenari, eta horietan laburkiro honako arrazoiak azaltzen dituzte:

- a) Lanpostuen balorazioa oraintxetik egiteko eskatzen dute.
- b) Plantillaren onarpenaren azken klausulari ez deritzote bidezko harik eta gestio-aldaketa erabaki arte. Klausula horretan Plantillaren geroko aldaketa aurreratzen da, hartara Bide Garbiketa Zerbitzuaren Zeharkako Gestioa ahalbidetzeko.
- c) Administrazioak aurrez egindakoak ez-betetzea edo urratzea salatzen da, hala nola lanpostuen balorazioan lanpostuak sartu izana eta orain sartutako lanpostu horiek berak desagertzea proposatzea, aurrekontuan dirua ere izendatua zutenean. Azkenik, irizten diote akordioak hautsi egingo lukeela Pasaiako Udalak 2002 eta 2003ko ekitaldietarako sinatu zuen akordio politikoa, Euskadiko Tokiko eta Foru Administrazioaren menpeko langileen lan-baldintzak arautzen dituen, non zerbitzuak sistema publikoaren bidez ematearen aldeko defentsa sutsua egiten den.
- d) Aurrez negoziazio kolektiborik ez dela egon argudiatzen dute, eta horrela ekainaren 11ko 9/1987 Legeko 32. art.a urratu dela.
- e) Era berean salatzen da Bide Garbiketa Zerbitzurako aurreikusitako gestio-sistemaren aldaketa ez dela behar bezala justifikatzen.
- f) Azkenik, salatzen da lanpostu hutsak kentzea 2002ko abuztuaren 12an Udalak onartutako Lan Eskaintza Publikoa zati batean indargabetzea dela, eta horrela azaroaren 26ko 30/1992 Legeko 105. art.a hausten dela.

Udal Idazkariak 2004ko irailaren 21ean txosten juridikoa egin zuen.

Aurreko guztia kontuan, eta 2005eko apirilaren 20ko Pertsonal eta Administrazio Batzordean erreklamazioei buruz egindako txostena entzun ondoren, Korporazioak bertako zinegotzien gehiengoz

ERABAKI DU

LEHENA.- Ezestea ELA eta LABeko sindikatu-atalek eta Pasaiako Udaleko Langileen Batzordeak 2005eko ekitaldiko Plantilla Organikoaren eta Lanpostu Zerrendaren hasierako onarpenari egin dizkieten erreklamazioak, ondoko OINARRIAK aintzat harturik:

- a) Balorazioa egin ez izana ez da prozedura honen xede, eta nolana ere, Administrazioaren jardura-ezean egongo ginateke eta hori horrela dela, legediak beste bide batzuk aurreikusten ditu aurkatzeko Dena den, Lanpostu Zerrendak ezin ditu beste maila batzuk izan, egin ez den balorazio baten ondorioz.
- b) Plantilla geroaldian aldatzeko aurreikuspenak borondate politikoa agertzea baino beste baliorik ez du; eta plantilla-aldaketaren bidez plazak kentzen direnean aurkatu ahal izango da.
- c) Ez dute ikusten Udalak aurrez egindako egintzen urraketarik dagoenik; izan ere, erreklamazioan aipatu dituztenak bidezkoak edo nahitaezkoak dira harik eta plazak kentzen diren arte, hala nola balorazio-prozesuan sartzea eta hortaz aurrekontu-kontsignazioa egitea. EUFALEBaren aurreikuspenari buruz, Udalbatzaren iritzia da zerbitzua zeharka ematea zuzenean ematea bezain publikoa dela. Dena den, 2004ko Aurrekontuan ezartzen zen edo behintzat aurreratzen zen aipatutako plazak kentzeko borondatea eta hala ere orduan ez zen errekurtsorik jarri.
- d) Negoziazio kolektiborik ez dela egon dioen alegazioa baztertzen da kontuan izanik gutxienez bi bilera egin direla Langileen Batzordearekin eta hauek idatzi bana aurkeztu zutela bilera horietan eta gainera horri erantsi behar zaio Arrazionalizazio Plana Pertsonal Batzordean eztabaidatu zela eta hor bazela gizarte-ordezkaritza, eta gainera, negoziazio prozesua irekiko da Udalbatzarrak bide-garbiketa zerbitzuaren gestio aldaketari hasierako onarpena ematen dionean.
- e) Justifikazio eskasiari dagokionez, Udalbatzaren iritzia da hori zerbitzu publikoa gestionatzeko sistema aldatzeko hartzen den akordioaren memorian egingo dela eta plazak kentzeko diren unean.
- f) Azkenik, Udalbatzak baztertzen du azaroaren 26ko 30/1992 Legeko 105. art.a hautsi delako salaketa, Eusko Jaurlaritzaren Toki Administrazio eta Erakunde Politikaren Zuzendaritzak 2004ko ekainaren 22an egin zuen txostenean oinarrituz, horren gainean Udal Idazkariak egindako txostena kategorikoa eta erabakigarria ez denez.

BIGARRENA.- 2005eko Plantilla Organikoa eta Lanpostuen Zerrenda behin betiko onartzea.

HIRUGARRENA.- Lanpostuen Zerrendari dagokionez, izan diren aldaketak bakarrik argitaratuko dira; eta Plantilla Organikoa, berriz, osorik argitaratuko da.

- Aktan jasotzeko, bozketaren emaitza honako hau da: BEDERATZI (9) aldeko boto, PSE-EE (5) PP (2) eta EB (2) taldeetako zinegotziena; eta ZAZPI aurkako boto, EAJ (4) eta EA (3) taldeetako zinegotziena.

- Parte-hartzeen atalean ondokoak esan dituzte:
  - EAJko zinegotzi-taldeko eledun Jose Luis Goikoetxea jn.ak bere taldearen botoa azaldu du: koherentziaz jokatu dutela dio, taldea aurrekontuaren eta kale-garbiketa zerbitzua kanporatzearen aurka dagoelako.
- Une honetan PSE-EEko zinegotzi Rafaela Romero Pozo sartu da bilerara.

### **5.-2005eko aurrekontua behin betiko onartzea.**

Ogasun eta Ondareko Informazio Batzordeak 2005eko maiatzaren 31ko irizpenean proposatutakoa aintzat hartuz, Udalbatzak, bertako zinegotzien gehiengoz

#### ERABAKI DU

LEHENA.- Hasiera batez onartutako 2005erako Aurrekontuaren aurkako erreklamazio guztiak atzera botatzea.

BIGARRENA.- Hasiera batean onartu zen eran, Pasaiako 2005eko Aurrekontua behin betiko onartzea (Kontu-hartzailearen otsailaren 25eko txostenean jasotzen diren azalpenekin, hasiera batean berraztertzeke geratu zirenak, hain zuzen ere).

HIRUGARRENA.- Aurrekontua Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzea, kapituluka laburtuta.

- Aktan jasotzeko, bozketaren emaitza honako hau da: BEDERATZI (9) aldeko boto, PSE-EE (5) PP (2) eta EB (2) taldeetako zinegotziena; eta ZAZPI aurkako boto, EAJ (4) eta EA (3) taldeetako zinegotziena.
- Parte-hartzeen atalean ondokoak esan dituzte:
  - EAJko zinegotzi-taldeko eledun Jose Luis Goikoetxea jn.a pozik agertu da aurreko udalbatzarrean zalantzan jarri ziren hainbat gauza aitortu direlako, esaterako, bi partidak errekonozimendukoak direla.

Bestalde, adierazi du PERCO sarreren aldaketari buruzko zuzenketa kenduta zegoela.

- EAko zinegotzi-taldeko eledun Miriam Canok eman duten aurkako botoa argudiatu du: iritziak trukatzeko aukerarik eza eta Gobernu Taldearen jarrera itxia.

- Alkateak EAko eledunari erantzun dio gerturatzeak hasierako onarpena baino lehen egiten direla eta haren taldeak justu kontrakoa uste du, jarrera itxia EAJ eta EA taldeena izan dela, alegia.

### **6.-Kale-garbiketako zerbitzua zeharka kudeatzeko akordioa / Ematea (hasierako onespena).**

Ondoko txostenak aztertu ditugu: Kale-gerbiketa Zerbitzuaren kudeaketa modua aldatzeari buruzko txostena eta Pertsonal eta Administrazioako Informazio Batzordeak 2005eko otsailaren 28ko irizpenaren bidez egindako proposamena.

Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen Legearen 85. artikulua aztertu dugu eta administrazioak ahalmena du zerbitzu publikoak emateko modua aukeratzeko.

Udalbatzaren eskumenekoa da zerbitzu publikoak kudeatzeko modua aukeratzea, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen Legearen 22.2.f) artikuluekin bat.

Idazkariak egin beharreko txostena egin du, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen Legearen 47.2.k) artikuluan eta Toki Araubidearen Oinarriaren Testu Bateginaren 54.1.b) artikuluan ezartzen denarekin bat. Horiek horrela, Udalbatzak, bertan diren zinegotzien gehiengoz ondokoa

### **ERABAKI DU**

**LEHENA.-** Kale-garbiketako zerbitzua zeharka kudeatzeko akordioa aintzat hartzea eta hasierako onespena ematea.

**BIGARRENA.-** Espedientea jendaurrean jartzea 30 egun naturaletan, memoria eta proiektua iragarki-taulan eta Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratuz.

- Aktan jasotzeko, bozketaren emaitza honako hau da: BEDERATZI (9) aldeko boto, PSE-EE (5) PP (2) eta EB (2) taldeetako zinegotziena; eta ZAZPI aurkako boto, EAJ (4) eta EA (3) taldeetako zinegotziena.
- Parte-hartzeen atalean ondokoak esan dituzte:
  - EAJko zinegotzi-taldeko eledun Jose Luis Goikoetxea jn.ak adierazi du irizpena ez zela horrela egin Pertsonal Batzordean eta egintza-batasunean ekinez udal idazkariaren txostenik gabe doala; eta horrek arriskua du, badirelako hirugarrenko batzuk prozedura judikalizatu dezaketanak.

- PSE-EEko zinegotzi-taldeko eledun Lore Suarez and.ak etenaldia eskatu du.
- Berriz ere bilerari ekin zaio eta alkateak adierazi du irizpena aldatu egingo dela. Udalbatzari soilik lehenengo puntua aurkeztuko zaio, zeharkako kudeaketaren hasierako onepenari dagokiona. Ondoren, espedientea jendaurrean jarriko da 30 egun naturaletan.
- EAJko zinegotzi-taldeko eledun Jose Luis Goikoetxea jn.ak adierazi du bere ustez aurrez beharrezkoak direla Ogasun Batzordearen irizpena eta aurrekontu akordioa.

Bestalde kritikatu du inork dokumentazioa eguneratu ez izana, zehazkiago Baldintza Berezien Agiria, duela urtebete irizpena emandakoa.

Memoria politikoari dagokionez, oinarririk gabea deritzo eta ohartarazi du ez duela ez idazpururik ez datarik.

Dokumentazioari dagokionez, haren iritziz berdin-berdin balio du kudeaketa-sistema aldatzeko edo oraingoa indartzeko; areago, oraingo sistemaren aldaketa proposatzera baino gehiago garamatza oraingoa hobetzera. Bere iritziz, ez dago argudio bakar bat ere sistema aldaketaren alde, eta ondoren memorian erabilitako argudioak aztertzeari ekin dio.

- Batetik, memoria teknikoan baliabide material eta giza-baliabiderik eza aitortzen da.
- Bigarren paragrafoan baieztatzen da baliabide publikoak gatibu daudela, eta hori ez du ulertzen, gastua 800.000 €tan handituko baita. Datu hau kontraesanean dago oraingo sistema hobetzeko nahikoa aurrekontu ez dagoelako argudioarekin.
- Azkenik, tamalgarriztat jotzen ditu memoria politikoko lehenengo eta hirugarren ondorioak.

Espedienteari txosten ekonomiko-finantzarioa erantsi behar zaiola deritzo, eta bertan informazioa homogeneizatu, datuak estrapolatu etab.

Azkenik, eskatu du memoriatik zabor-bilketari buruzko aipamenak kentzeko.

- Ondoren, Pertsonal eta Administrazio zinegotzi-ordezkarari Lore Suárezek EAJko zinegotzi-taldeko eledunari erantzun dio eta gogorarazi dio Pertsonal eta Administrazio Batzordean politikoki justifikatu zuela orain udalbatzarrerara ekarri den proposamena, eta orduan EAJko zinegotzi-taldeko eledunak ez zituela udalbatzarrean adierazi dituen kontrako arrazoiak agertu; horrek harrিতuta utzi du eta zalantzak sortu dizkio, batez ere jakin badakielako aurreko ekitaldian talde hori jarduketa hau barne zuen aurrekontuaren alde zegoela.
- EAJko zinegotzi-taldeko eledun Jose Luis Goikoetxea jn.ak erantzun dio aurrekontu-akordioa lortzeko zenbait gauzetan amore eman beharra dagoela eta zehazki haren taldea ez zegoela



jarduketa horrekin ados; izan ere, zerbitzu horren kudeaketa modu egokiaren hautaketan eragiten saiatu ziren.

Eta, beste gairik ezean, 10:30ean batzarra amaiturik, nik, idazkariak, alkate andrearen oniritziarekin, akta hau egiten dut, bertan eztabaidatu eta erabakitakoa jasota gera dadin